



# Trafikoko zehapen-prozedura (isunak)

## Aurkibidea

Trafikoko zehapen-prozedura (isunak).....	2
1.- Prozeduraren hasiera.....	2
1.1.- Salaketa-orria eskura ematea.....	2
1.2.- Jakinarazpenak.....	2
1. kasua.....	2
2. eta 3. kasuak.....	3
1.3.- Gidaria Identifikatzea.....	3
Nola egin identifikazioa?.....	4
1.4.- Arau-haustearen erantzulea.....	4
2.- Órgano eskuduna.....	5
3.- Aukerak, salaketaren jakinarazpena jaso ondoren.....	5
3.1.- Salaketarekin ados bazaude eta % 50 ordaindu nahi baduzu.....	5
3.2.- Salaketarekin ados ez bazaude.....	5
3.3.- Isunaren % 50 ordaindu ez baduzu, ezta alegaziorik aurkeztu ere.....	6
4.- Arau-haustea eta zehapenak.....	6
4.1.- Isun-zigorak.....	6
4.2.- Puntu galera.....	7
5.- Zehapenak betetzea.....	7
Isunen ordainketaren erantzule subsidiarioak:.....	7
6.- Zehapen-ebazpenaren aurkako errekurtsioak.....	7
6.1.- Berraztertze errekurtsioa.....	7
6.2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa.....	8
6.3.- Beste edozein errekurtsio.....	8
7.- Preskripzio-epeak.....	8
7.1.- Arau-haustea.....	8
7.2.- Zehapenak.....	8
8.- Zehapen-prozeduraren iraungipena.....	8
9.- Araudia.....	8

# Trafikoko zehapen-prozedura (isunak)

## 1.- Prozeduraren hasiera

### 1.1.- Salaketa-orria eskura ematea

Zehapen-prozedura trafikoko arau-haustearen salaketa-orria eskura ematen denean hasten da, ondorengo jakinarazpenik izan ezean, kasu hauetan soilik:

- Gertakarien berri radarraren edo irudiak hartzeko beste bitarteko batzuen bidez jasoi izan denean.
- Ibilgailua aparkatuta dagoenean, eta gidaria bertan ez.
- Ibilgailua geldiarazteak zirkulazioan arriskua sor lezakeenean.
- Agente salatzailea trafikoa zaindu eta kontrolatzeko lanetan ari denean eta ibilgailuari jarraitzeko bitartekorik ez duenean.

### 1.2.- Jakinarazpenak

Salaketaren unean ematen EZ diren jakinarazpenak, baita zigor-prozeduraren barruan egiten diren gainerako jakinarazpenak ere, baliabide hauen bitartez jakinarazten dira:

1. Bide Helbide Elektronikoa (BHE).
2. Salatuak Bide Helbide Elektronikorik eduki ezean, **prozedurarako adierazi duen helbidean** egingo da jakinarazpena.
3. Halakorik ezean, **Probintziako Trafiko Buruzagitzaren (JPT) erregistroetan ageri den helbidean**. Horrenbestez, jakinarazpenetarako helbide-aldaketa guztien berri eman behar zaio Buruzagitza horri.

#### 1. kasua

1.- BHE (webgunea gaztelaniaz dago) delakoa Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren (DGT) postontzi elektronikoa bat da. Harpidetuz gero, bertan jasoko dituzu trafikoaren arloko komunikazio eta jakinarazpen elektronikoak, paperezko jakinarazpenen ondorio juridiko berberekin. BHEk jakinarazpena pertsona salatuaren esku zein egun eta ordutan jarri den egiaztatzen du, bai eta interesdunak hura eskuratzeko egun eta ordua ere; izan ere, une horretatik aurrera joko da jakinarazpena egintzat, legezko ondorio guztietarako.

Udalaren jakinarazpen elektronikoko abisuen zerbitzuan alta emanez gero, bertan ere jaso daitezke jakinarazpen elektronikoak.

Kasu bietan, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoen “Nire karpeta” atalean egin behar dirat rafikoko zehapen-espedienteen jakinarazpen elektronikoen kontsultak.

Kontuan hartu behar da “Nire karpeta” atalean alta ematen zaiela Udalaren trafikoko zehapen-prozeduraren jakinarazpen GUZTIEI, jakinarazpen elektronikoko zerbitzuan alta eskatu den ala ez kontuan hartu gabe; izan ere, trafikoko zehapen-prozeduraren jakinarazpen guztiak interesdunaren eskura jarri behar dira Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko “Nire karpeta” atalean.

## **2. eta 3. kasuak**

2 eta 3.- Jakinarazpena posta ziurtatu bidez egiten bada, berariaz adierazitako helbidean edo Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren (DGT) erregistroan ageri den helbidean; jakinarazpena unean interesatua ez bada bertan, bizilekuan dagoen edonork hartu ahal izango du, nor den jasota uzten badu. Jakinarazpena ez badu inork hartzen, zehapen-prozedura jasoko da gorabehera hori, jakinarazpena egiten ahalegindu zeneko eguna eta ordua adierazita; eta berriro egingo da ahalegina hurrengo hiru egunen barruan.

Ezinezkoa gertatzen bada jakinarazpena helbidean egitea, BOEn argitaratuko da. Jakinarazpena BOEn argitaratzen denetik 20 egun naturaleko epea igaro delarik, jakinarazpena gauzatutzat joko da.

Gogoratu behar da posta bidezko jakinarazpen hori, aurreko puntuan adierazi bezala, alta emanda egongo dela Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko "Nire karpeta" atalean.

### **1.3.- *Gidaria Identifikatzea***

Salaketa arau-haustea egin eta gero jakinarazi ondoren, ibilgailuaren titularrak HOGEI EGUN NATURALEKO EPEA izango du, jakinarazpena egiten denetik hasita, arau-haustearen erantzulea den gidaria identifikatzeko, zeinaren aurka zehapen-prozedura abiaraziko baita.

Baldin eta ibilgailuaren titularrak, arau-haustea egin aurretik, Trafiko Zuzendaritza Nagusiari (DGT) ohiko gidari baten edo urtebetetik gorako (epe luzera) errentari baten berri eman izan badio, horiei egokitu zaie gidaria identifikatu beharra.

**Aparkatzearekin lotutako arau-hausteetan ez dago** gidaria identifikatzeko betebeharririk. Hala ere, arau-hauste dinamikoetan, pertsona juridikoek bakarrik dute gidaria identifikatzeko betebeharra.

Azkar ordaindutako salaketen kasuetan ez da identifikaziorik onartzen.

Gidari bat eta bakarra identifikatu daiteke, salbuespen bakar batekin, pertsona juridiko batek (renting) beste pertsona juridiko bat identifikatzen dueneko, eta azken honek pertsona fisiko bat.

Ibilgailuaren titularrak –edo, halakorik izatera, ohiko gidari zein errentariak– erantzule den gidaria identifikatzen ez badu, edo epez kanpo egiten badu, arau-hauste oso larriaren egiletzat joko da, eta jatorrizko arau-hausteari zegokion isunaren bikoitza edo hirukoitza ezarriko zaio.

## **Nola egin identifikazioa?**

### **A.- Pertsona fisikoek**

Pertsona fisikoek gidaria identifika dezakete:

- Ziurtagiri digitalik gabe, salaketaren datuen bitartez, hemen: Egoitza elektronikoa - Gidaria identifikatzea
- Ziurtagiri digitalarekin, hemen: Egoitza elektronikoa - Gidaria identifikatzea trafikoko arau-hausteetan
- Udal-erregistroan agiri hauek aurkeztuta:
  - Zehapen-prozedura hastearen jakinarazpena, ibilgailua gidatzen zuen pertsonaren datuen atala beteta
  - Udalaren eskabide-orri orokorra, gidaria identifikatzeko datuak beteta

### **B.- Pertsona juridikoek**

Pertsona juridikoek Gasteizko Udalaren Egoitza elektronikoan asmo horretarako propio ipinitako izapidearen bidez identifikatu behar dute gidaria.

#### ***1.4.- Arau-haustearen erantzulea***

Arau-haustearen erantzulea arau-haustearen egilea da. Berezitasunak:

- Kaskoa erabiltzea nahitaezkoa den ibilgailu orotako gidaria erantzule izango da, baldin eta ez badu hura erabiltzen, bai eta gutxieneko adina ez duten bidaiariak garraiatzen baditu ere. Halaber, ibilgailuaren gidaria izango da erantzulea haurrei eusteko sistemarik erabiltzen ez denean ere.
- Pertsona salatua hemezortzi urtetik beherakoa bada, ezarritako isunaren erantzule solidario izango dira haren guraso, tutore edo legezko edo izatezko zaintzaileak, hurrenkera horretan.

- Epe laburreko alokairuko ibilgailuen enpresen (renting) kasuan, ibilgailuaren errentaria izango da erantzule. Errentaria gidaria ez dela edo pertsona juridikoa dela adierazten badu, gidaria identifikatu beharko du.

## **2.- Órgano eskuduna**

Trafiko Isunen Ataleko buruak bideratuko du dosierra, eta Segurtasun Saileko zinegotzi ordezkaria izango da zigortzeko eskumena duen organoa.

## **3.- Aukerak, salaketaren jakinarazpena jaso ondoren**

### ***3.1.- Salaketarekin ados bazaude eta % 50 ordaindu nahi baduzu***

20 EGUN NATURALeko epea duzu, salaketa jakinarazi zaizun egunaren biharamunetik, isuna zeure borondatez ordaintzeko, zigorraren zenbatekoaren ehuneko 50eko murrizketarekin. Horrek berekin dakar:

- Alegazioak egiteari uko egitea. Aurkezten badira, artxibatu egingo dira.
- Prozedura bukatzea, gerora berariazko ebazpenik eman gabe.
- Zigorra irmoa izango da, eta horrek administrazio-bidea agortuko du. 2 hilabeteko epean baino ezingo duzu aurkeztu administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, isuna ordainduz geroztik.

#### **Nola ordaindu:**

- Internet bidez, esteka honetan: [www.vitoria-gasteiz.org/ordainketak](http://www.vitoria-gasteiz.org/ordainketak).
- Kutxabank, Laboral Kutxa, Abanca, Caixabank, Caja Rural Navarra eta Banco Santander finantza-entitateen edozein bulegotan, haiek ezarritako ordutegian.
- Herritarrei laguntzeko bulegoetan edo San Martineko udal bulegoetan (Teodoro Dublang Margolaria, 25), kreditu-txartelarekin. Hitzordua eskatuta, [www.vitoria-gasteiz.org/hitzordua](http://www.vitoria-gasteiz.org/hitzordua) webgunean edo 010 telefonoan (Gasteiztik kanpotik deituz gero, 945 16 11 00).

### ***3.2.- Salaketarekin ados ez bazaude***

20 EGUN NATURALeko epea duzu, jakinarazi zaizun egunaren egunaren biharamunetik, alegazioak aurkezteko eta egokitzat jotzen dituen frogak proposatu edo aurkezteko.

#### **Nola aurkeztu alegazioak:**

- Ziurtagiri digitalarekin, Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>. Izapidea: Erregistro elektronikoa.

- San Martineko udal-bulegoetako eta herritarrei laguntzeko bulegoetako udal-erregistroetan.
- Legean aurreikusitako edozein erregistro edo bulegotan.

### **3.3.- Isunaren % 50 ordaindu ez baduzu, ezta alegaziorik aurkeztu ere**

Salaketaren jakinarazpenak prozedura zigortzailea ebazten duen egintzaren ondorioa izango du. 20 eguneko epea bukatzen den egunaren biharamunean joko da bukatutzat prozedura. Isuna gainordainekin kobratzeko dosierrari ekingo dio Udaleko Dirubilketa Betearazleak, salaketa jakinarazi zaizunetik 30 EGUN NATURAL igarotzen direlarik.

Kasu hauetan baino ez da hori aplikatuko:

- Arau-hauste arinak.
- Puntuak kentzea ez dakarten arau-hauste larriak.
- Arau-hauste larriak edo oso larriak, salaketa unean bertan jakinarazten direnean.

Gainerako arau-hausteetan, dagokion zehapen-ebazpena emango da.

## **4.- Arau-hausteak eta zehapenak**

### **4.1.- Isun-zigorak**

Trafiko araudiaren kontrako arau-hausteak **diru-isunez zigortuko** dira, eta arau-haustearen sailkapenaren arabera izango da horren zenbatekoa:

- Arau-hauste **arinak 100 euro** arteko isunez zigortuko dira.
- Arau-hauste **larriak 200 euro** arteko isunez zigortuko dira.
- Arau-hauste **oso larriak 500 euro** arteko isunez zigortuko dira.

### **Kontuan hartzeko xehetasunak:**

- Abiadura-mugak ez errespetatzeagatik egindako arau-hausteak Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko urriaren 30eko 6/2015 LEDen IV. eranskinean xedatutako zenbatekoekin zigortzen da.
- 1.000 euroko isunarekin zigortuko dira hiru arau-hauste mota hauek: arauz finkatutako alkohol-tasak bikoiztuta gidatzea, azken urtean arau-hauste berean berrerortzea, eta gorputzean drogak izanik egindako arau-hausteak.

- 1.000 euroko isunarekin zigortuko da gorputzean alkohola edo drogen presentzia detektatzeko probak egiteari uko egitea.
- Ibilgailuaren titularrak edo errentariak gidaria behar bezala identifikatzen ez badu, jatorrizko arau-hausteari zegokion isunaren bikoitza edo hirukoitza ezarriko zaio: bikoitza arau-haustea arina bazen, eta hirukoitza arau-haustea larria edo oso larria bazen.
- 6.000 euroko isunarekin zigortuko da radar-inhibitzailea edo trafikoa zaintzeko sistemen funtzionamendua oztopatzen duen bestelako mekanismoren bat instalatuta duen ibilgailua gidatzea.

#### **4.2.- Puntu galera**

Arau-hauste larri edo oso larri jakin batzuk eginez gero, puntuak kenduko dira gidatzeko baimen edo lizentzian, isuna administrazio-bidean irmo bihurtzen denean. 6/2015 LEDen II. eta IV. Eranskinetan zehazten da zein diren arau-hauste horiek, eta zenbat puntu kenduko diren halakorik egiteagatik.

#### **5.- Zehapenak betetzea**

Zehapena irmoa denean, pertsona salatuak HAMABOST EGUN NATURALEKO epea izango du isuna ordaintzeko. Ezarritako epea isuna ordaindu gabe amaitzen bada, premiamendu fasea hasiko da.

##### **Isunen ordainketaren erantzule subsidiarioak:**

Arau-haustea egindako ibilgailuen titularrak erantzule subsidiario izango dira gidariari ezarritako isuna ordaintzen ez den kasuetan, kasu hauetan izan ezik:

- Lapurreta, ebasketa edo bere borondatearen aurkako beste edozein erabilera jasan izan badu.
- Titularra ibilgailuak gidaririk gabe errentan uzteko enpresa bat bada.
- Arau-haustea egin den unean ibilgailuak epe luzerako errentari bat izendatua badu.
- Arau-haustea egin den unean, ibilgailuak ohiko gidari bat izendatuta duenean.

#### **6.- Zehapen-ebazpenaren aurkako errekurtsioak**

##### **6.1.- Berraztertzeako errekurtsioa**

Ebazpena eman eman zuen organoari beraren aurrean aurkeztu behar da, aukeran, hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik. Eskabide orriaren eredu

Salatuak goiz ordaintzeagatik % 50eko murrizketa izanbadu, ezin izango du halako errekurtsorik jarri.

Errekurtsoa jartzeak ez du etengo zehapenaren betearaztea.

## **6.2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa**

Zuzenean, dagokion administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, zigortzeko ebazpenaren jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik hasita.

## **6.3.- Beste edozein errekurtsu**

Egoki den neurrian.

## **7.- Preskripzio-epeak**

### **7.1.- Arau-haustek**

- Arau-hauste arinak: 3 hilabete.
- Arau-hauste larriak: 6 hilabete.
- Arau-hauste oso larriak: 6 hilabete.

Zehapen-prozedurak iraun bitartean, preskripzio-epea arau-haustea egiten den egunetik aurrera kontatzen da. Administrazioak ekintzaren bat egin eta salatuari jakinarazten zaionean eteten da epea, edo haren identitatea nahiz helbidea ezagutzeko izapideren bat egiten duenean. Halaber, preskripzio-epe hori eten egiten da salaketa jakinaraztean.

Salatuari egotz ezin dakiokkeen arrazoiren bat dela medio jardunbidea hilabete baino gehiago geldituta egonez gero, berriro ekin beharko zaio preskripzio-epeari.

### **7.2.- Zehapenak**

Zigorra isun ekonomikoa bada, preskribitzeko epea 4 urtekoa izango da, administrazio-bidean irmo bihurtzen den egunaren biharamunetik hasita.

## **8.- Zehapen-prozeduraren iraungipena**

Prozedurari ekin zitzaionetik urtebete igaro ondoren ebazpenik eman ez bada, hura iraungi egingo da, eta dosierra artxibatuko.

## **9.- Araudia**

- 6/2015 LED, urriaren 30ekoa, Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onesten duena.



- 320/1994 Errege Dekretua, otsailaren 25ekoa, Trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren arloko zehapen-prozeduraren Erregelamendua onesten duena.
- 1428/2003 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra onesten duena.
- 2822/1998 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onesten duena.
- 818/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Gidarien Erregelamendu Orokorra onesten duena.
- Izaera urbanoko bide publikoetako erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen dituen Udal Ordenantza.
- Lurrazaleko Aparkaldi Mugatuaren Zerbitzua (TAO) arautzen duen Udal Ordenantza.
- 7.6 zenbakiko ordenantza fiskala: Hiriko trafikoa eta ibilgailuen aparkalekuak arautu eta kontrolatzeagatik ordaindu beharreko tasak.